



Erregulazio-zerbitzuak eta zerbitzu soziokulturalak

1- Erregulazio-zerbitzuak:

Erregulazio-zerbitzu ekosistemikoak kontsumoz besteko funtzioak dira, besteak beste honako prozesu hauek erregulatzen dituztenak: karbonoaren atzipena, gertaera klimatikoen moteltzea, hondakin-uren deskontaminazioa, mantenugaien birziklapena, higaduraren prebentzioa, polinizazioa eta kontrol biologikoa.

Zerbitzu natural horiek eraldaketa- edo manufaktura-prozesuetatik pasatu gabe eskuratzen dira. Orokorrean ez dira ukigarriak izaten, eta, hortaz, ez dira behar den neurrian baloratzen. Zerbitzu horiek kaltetu edo degradatzen direnean, galerak funtsezkoak izan daitezke eta haien lehengoratzeari ere zaila izan daiteke. Zerbitzu natural horiek gizarte-ongizaterako duten garrantzia handia ikusita, funtsezkoa da haien kontserbazio eta lehengoratzearako bitartekoak bilatzea.

Erregulazio-zerbitzu garrantzitsuenak honako hauek dira:

Tokiko klima

Zuhaitzek eta berdeguneek hirietako tenperatura jaisten dute eta airearen kalitatea erregulatzen dute, atmosferako kutsatzaileak ezabatzearen bidez. Basoek prezipitazioak ekartzen dituzte eta ura jartzen dute eskura, bai tokiz toki eta bai eskualde mailan.

Karbono-atzipena

Ekosistemek klima globala erregulatzen dute, berotegi-efektuko gasen isurketak atzitzearen bidez. CO₂ da atmosferaren eta lur-klimaren balantze termikoan eragin zuzenekoena duen gasa. CO₂aren hustubide nagusia biomasaren ekoizpen fotosintetikoa da. Zuhaitzak eta landareak hazten diren neurrian, atmosferako karbono dioxidoa atzitu (karbonoa bahitzea) eta euren ehunetan gordetzen dute.

Muturreko gertaeren aurreko babesa

Ekosistemek eta organismo bizidunek moteltze-guneak sortzen dituzte, hondamendi naturaletatik babesteko. Uholdeek, ekaitzek, tsunamiek, elur-/lur-luiziek eta lehorteeek eragindako kalteak murrizteko dituzte.

Ur-zikloaren kontrola.

Kalitatezko ekosistemek ur-jariatzea murrizten dute, beraren ordez infiltrazioa bultzatuz; hala, ura iragazten dute, eta horrek ahalbidetzen du herritarrentzako hornidura erregularragoa izatea. Ur-korrente orok auto-arazketa potentzial propioa du, ur-korrontearen emariaren eta beraren turbulentzia mailaren arabera. Leku batzuetan, ur-jauzi artifizial txikiak sortzen dira turbulentzia areagotzeko, eta, hortaz, oxigenoa xurgatzeko ahalmena ere, uretan duden substantzia organikoak oxigenatzeko.

Hondakin-uren tratamendua

Hezeguneek eta beste ekosistema batzuek efluenteak iragazten dituzte, hondakin-materialak deskonposatzen dituzte mikroorganismoen jardunaren bitartez, eta patogeno kaltegarriak ezabatzen dituzte.



Lurzoruaren higaduraren eta emankortasunaren kontrola


Landare-estalkiak lurzoruaren higadura prebenitzen du, eta, hortaz, luraren degradazioa, lurzoruaren emankortasunaren galera eta basamortutzea eragozten ditu.

Polinizazioa

Elikagai moduan kontsumitu daitezkeen landare-espezieen % 80 inguru polinizazioaren mende daude euren ugalketarako. Polinizatzaile gehienak intsektuak eta hegaztiak dira, eta agente horiek guztiz ondo babestutako sistemak behar dituzte bizirik irauteko.

Kontrol biologikoa

Monolabore estentsibo eta jarraituek ustiapen-kostuak murrizten dituzte, makineria, langile eta eskalako ekonomien aldetik, baina haien eraginez laboreak sentikorra goak izaten dira izurriteen hedapenaren aurrean, eta, hortaz, inbertsio mardulak egin behar izaten dira pestizidetan, eta pestizida horiek lurzoruak degradatu eta akuiferoak kutsatzen dituzte. Labore desberdinak espazio eta denbora aldetik tartekatzen badira eta habitatak basa-faunarentzat kontserbatzen badira -hegaztiak bereziki-, horrek murrizten du izurriteak agertzeko probabilitatea, eta batez ere haien hedapena.





2- Zerbitzu soziokulturalak:

Zerbitzu ekosistemiko kulturalak eta informaziokoak ekosistemek eskaini eta lekuen giza balorazio ez-materialarekin zerikusia duten zerbitzuak dira. Besteak beste, honako hauek izan daitezke: ziklo naturalei edo ondare naturalari lotutako errepresentazio kulturalak eta tradizioak (jaiak, erritoak, leku sakratuak, errepresentazio artistikoak, eta abar.); edertasun eszenikoari edo tokiko tradizioen ezagutzari lotutako zerbitzuak (interes berezien inguruko turismoa); edo ezagutzaren sorrerari eta zientziaren garapenari ekarpena egiten dioten zerbitzuak (aztarna arkeologikoen azterketa, naturaren behaketa)... Zerbitzu ekosistemiko kulturalak "erabilera ez-komertzialetarako aukerak eskaintzeko" funtzioarekin lotzen dira; beste batzuen artean, honako adibide hauek aipatu daitezke zerbitzu horietarako: ekosistemen erabilera artistikoak, estetikoak, hezkuntzakoak, espiritualak eta/edo zientifikoak. Bai ekonomiak eta bai beste zientzia batzuek emandako tresnei esker, posible da ekosistemek giza ongizateari egindako ekarpenen balio ekonomikoa kalkulatzeko.

Hona hemen zerbitzu soziokultural garrantzitsuenak:

Balorazio estatikoa eta kulturarako inspirazioa

Animaliak, landareak eta ekosistemak inspirazio-iturri izan dira arte gehienetarako, kulturarako eta diseinurako.

Turismoa

Paisaiak eta naturak eskaintzen duten gozamenak milioika bidaiari erakartzen ditu mundu osoan. Zerbitzu kultural honek onurak eskaintzen ditu bisitariarentzat eta turismo-operadoreentzat.

Esperientzia espiritualak eta kideztasun zentzua

Natura erlijio gehienek elementu komun bat da. Herentzia naturala, identitatearen zentzu espiritualak, ezagutza tradizionalak eta horiei lotutako ohiturak garrantzitsuak dira kideztasun zentzua sortu ahal izateko.

Aisialdia

Naturan egiten diren aisialdi jarduerak rol garrantzitsua jokatzen dute pertsonen osasun fisiko eta mentala mantentzeko; adibidez: ibiltzea eta kirola egitea parke eta hiri-berdeguneetan, 2000 Natura Sarea, mendiko ibiliak, basoetako bainuak, eta abar.

